

## Antiamerikanismoa

EUGENIO IBARZABAL



**GERRA** bukatu da. Batzuek irabazi egin dute eta beste batek galdu, ordea. Arabiarren aurkako gerra omen zen, baina Husseinek, bere gudarietatik aparte, ez du arabe lagun bat ere lortu aldamentean. Bush-en gerra omen zen bakar bakarrik, baina herrien arteko koalizioak gero eta firmeago bukatu du. Irak zanpatu nahi zuten, baina hori gertatu baino lehen gerra gelditu egin da. Gezurrak besterik ez omen genituen jasotzen, alde batetik eta bestetik, baina hor omen dago oraindik Bagdad Irratia emititzen eta garbi gelditu da egia eta gezurra. Ez naiz zuri eta beltz horietako. Palestiniarek eskubide osoa dute, eta akordio horiek ere kunplitu egin behar dira. Baina hau zenbaitetik airtortzen dugun bezala, zergatik ez beste batzuek airtortu ere manipulazio, injustizi eta gezur munduan bizi izan direla?... Zergatik ez airtortu zenbaiten erizatik eta posizioak antiamerikanismoa hutsa besterik ez direla izan?... Berdin dela batzuenaz gaizki edo ondo egon, amerikanoek A esaten badute beraien Z erantzun eta defendituko bait dute... Ez al da garbi gelditu, antiamerikanismo antzu hori dela ta, edozer injustizi defenditzeko kapazak bihurtu direla?... Ez dut sekulan defendituko amerikanoen postura Chilen orain dela zenbait urte edo Txinan joan den urtean, baina ahaletan gaitzen eskatasun apur batez gauzak aztertzen. Bestela pareta baten kontra joko dugu, kasu honetan bezala. Marxismo erori da, komunista herrien «marabillak» ere bai...eta noiz eroriko bere ondorio besterik ez den «antiamerikanismo» aspargaria?...

## EL DIARIO VASCO

### Informazio eza edo errealismorik eza

Gaizki hasi zara Azua jauna. Ezin da tratamendu onik jarri aurretik diagnosi on bat egin gabe, eta zuk diganostikoan egin duzu huts. Izan ere, ez zara enteratu Euskal Herria une hauetan ekonomi krisi handia ari dela jasaten, eta ez «ralentizazio txiki bat dugula orain...» Ez al duzu harremanik euskal enpresarioekin? Edukiko bazenu, jakingo zenuke eskabide-karterak iaiztik hona gutxienez % 50 jaitsi direla. Jakingo zenuke lanean dauden pertsonen indizeak argi eta garbi jaitsi direla. Jakingo zenuke morositatea nabarmen igo dela. Jakingo ere hustiapen-kontuak ahlukdu egin direla, eta duela hilabete batzuetatik hasi zirela tesoreri kontuak estutzen. Autofinanziazioa desagertu da eta ondorioz inbertsioa ere bai.

EUGENIO ACHA / 1991-III-2

EDITORIALA / 1991-III-2

## DEIA

### Garaipen militarra eta agonia ideologikoa

Europako gizartean bezalako orden sozial batean, oinarri iraiztaileetan finkatzen dena, bakearen balioaren aurka asatatsunarena juzgatzen saiatzea egingizuzin ergela da. kontutan hartzen den bitartean, gizarte modernoen sorrerako irajina bezala, Estatuak biolentzia legitimoki gauzatuko du. «Askata



64. ROTO

EL ROTO / EL INDEPENDIENTE / 91-III-2

## EL CORREO ESPAÑOL

### Emaizta gaseosoak

Joan den asteazkenean Moncloan egindako bileraren emai-

strategiaren euskarrietako bat. suna» ondasun gorena den bitartean, ez dira faltako ejerzitokoak hori defendatzeko.

GABRIEL VILALLONGA / 1991-III-2

## Navarra

### Aizpunen erasoaldia

Bere posturarekin, Aizpunen partiduren ideia emblematikoa defendatzen du, baina erasotzen dio ere, Nafarroako Gobernu eskuratzeko Alirik diseinatutako

estrategiaren euskarrietako bat.

Textuaguru horretan, kontserbadoreen hauteskunde perspektibak ez dira zoragarriak, UPNren Asanblea Erregionaleko emaitza edozein izanik. Alliren tesiak inposatzen badira, hainbeste zauri geratuko direla itxi gabe, Aizpunen aldeko UPNko hautesleetak asko abstentitu egingo direla zenro eskuin batu horren aurrean, eta lehendakari erregionalistarenak nagusitzen badira, hots, bakarka joatea, zer arario egingo lukeen galdetza baino ez da geratzen.

JAVIER LEGARDA / 1991-III-2

## Nazioarteko desordenu berria

JOAN MARI TORREALDAI



**GOLKOKO** gerraz aparte zer bait idaztea zaila den une honetan, iragarki bat ikusi dut oso ona, oso interesgarria. Oso ona iragarki bezala, eta oso interesgarria edukin bezala. Goseak jana dagoen mutiko beltz baten irudiaren azpian hau dakar: «La cocina vasca no llega aún a todos».

Baina garbi ikusten da iragarki hori Golkoko gerra bukatu (?) aurretik pentsatua dagoela. Zeren eta aurretiazko gauzak desberdin izango bait dira. Ordenu berria ezarriko bait da indarrean orain. Saddam Hussein-ek, bistan da, hautsi egin zuen ordenu sakratu hori. Gure soldadu jator eta adoreauek, zoriez, bere onera ekarri dute atzera Hussein-en desordenua. Bakean gaude orain, «en paz», umetan esaten genuen bezala.

Eta orain nazioarteko ordenu berri bat jarriko da martxan. Ordenu berri hori indarrean jartzen denean, laster, euskal sukaldariak aukera izango dute beren jaki goxoa Iraken, Armenian, Palestinan, Nikaraguan, Burundian, Angolan, Etiopian... banatzeko. Doan banatzeko, noski.

Ordenu berri hori esker, eta Bushi esker (dena esan behar da, antiamerikanismo merketik ihesi), —eta, noski, ONUk antolatutik— hemendik aurrera. Hirugarren Munduari ez zaio armarik salduko sekula. Jakia eta eta botikak bai, horiek eman egingo zaizkio, eta ugari eman ere. Soldaduak ez baino medikuak bidaliko dira aurrerantzen.

Horra nazioarteko ordenu berria. Hegoarekin zordun omen gara. Honela dio iragarkiak. Zordun bakarrik bagina, gaitz erdi. Zanpazaila eta hustiratzaila gara batez ere. Eta ez gutxiago Golkoko gerraren ondoren. Baietz nazioarteko ordenu berri bendeinkatu hori, gutxienez, aurrekora bezain zaharkitua izan!

## Bartolo

Zure ametsa Euskal Herria eta zinez euskalduna hau da bizitzak horren trukean eman dituzun erantzuna gure barnean, huts nabarmena nabarituko duguna Santuxu aldenik bihotz saminez ez adiorik laguna!

IOSU TELLERIA (SANTUTXU)

### Lesakako ikastolari, zorionak eta eskerrik asko.

Joan zen inaugurazio pista. Itzali dira foko argiak, isildu dira txaloak, eta itxiko ziran goardasolak ere, atertut bait du. Egun batzuk pasa dira, igandea ezkerotik. Eta Otxorreneko atariak haur irri eta negarrez beste izanen dira, eguneroko biziaren taupada, hor, porru baratza euskararen baratza bilakatu duzun zelai hortan.

Hemendik, ezin isilik egon, ezin, haizetara bi gauza esan gabe:

1.- Zorionak, Lesakako

«Tanturairu» ikastola. Egunerok ez da ikastola bat inauguratzen, ez horixe! Benetan, ezina ekin ez gina.

2.- Eta eskerrik asko. Eskerrik asko amets zahar bat bete delako, nere, zure, gure amets kuttun bat egi, amets guztiak paperrontzira erortzen ari diren garai hauetan. Guk, baten, ezarri omen genuen lehen harria. Baina hor, orain, harri asko jarrita, piramide bat osoa. Lan eskerga, bikaina, askotan esker txarreko lana, lan isila egin duzun horri, eskerrik asko. Eta aurrera boliel. Irufetia eta Leitzatik.

MARIA JOSE LEKUNBERRI ETA ANTTON ERKIZIA (LEITZA)

## Paradisua

Lau hilabete da Atxarte eta Atxa Txiki harrobietako langileek euren lana utzi behar izan zutela, ekologisten protestak ziuziela medio. Denbora luze honetan, eskalatzaileak, Labargorriko haitzetan zintzilikatuta egonez adierazi dute euren protesta. Eurenkin bat nator, beraz neu ere ez nago kanterak martxan egotearen alde,

baina langileen etorkizunak ere arduratzen nau.

Dena dela, guzti honek eragin handia izan du Mendiola deritzan auzoan, bertako ingurugiroan hain zuten ere.

Lehenago, kanteretako harria eramaten zuten kamioiak ziren Mendiola zeharkatzen duen bidetaren jaun da jabe, bertatik, edozein pertsonentzat, oinez edo bizikletan ibiltzea oso arriskutsua bihurtu zitekeelarik. Halaber, kamioien zalaparta eta hautsa ez ziren bat ere atseginak.

Bertako baseritarrek ere begi onez ikusi dute kamioien falta hau. Bake eta lasatasun honek, aintzinako ingurugiroa gogora eraziko diete; kamioi eta zalaparta gabeko ingurugiroa, alegia.

Baina lehenago, kamioiak inguru honetan bizirik zeuden, Mendiola auzoko ezagarrak nagusi lez, duen paisaia zoragarria bageneukan, orain «paradisua» ere deitu diezaioguke.

Nork ez luke toki zoraguri honetan, baserrixo bat edukitzea nahi? Adan eta Evak ere ez zuten honako paradisurik izan.

MIKEL AZKARRAGA (ABADIÑO)

## ZUZENDARIARI

## PERTSONAIA



### Ramon Latasa

Hirurogeitabat urterekin Ramon Latasa da hila, danok dakigu izandua dela aizkolari bat abila. Eritasun bat etorri eta gelditu oso debila, Euskal Herriaren famatua zan baina egonda da ixila, hemengo partez beste munduan zeruban goza dedila.

LUIS OLAETXEA

Administrazio Kontseiluko Lehendakaria:

MARTIN UGALDE

Kontseilu Editorialeko Lehendakaria:

JUAN MARI TORREALDAI

Kontseilari Ordezkaria:

JOXE MIEL ZUMALABE

Gereatea:

INMA GOMILA

Zuzendaria:

PELLO ZUBIRIA

Zuzendariordeak:

NEREA AZURMENDI

LUZIEZ ETXEZAHARRETA

ISAKI URIA

Publizitatea:

KORNELIO ROTETA

# Egunkaria

Batzorde Parekidea: 72564 E  
Lege Gordailua: SS 800/90

## HELBIDEAK

Egoitza soziala, Administrazioa: Antso Jakituna, 16-1. / 20.010 Donostia / ☎ 46 90 22 / Faxa: 45 59 57  
Erredakzio eta Tailerra: ANTZA S.A. Industrialdea 01-02 Pabillioak / 20.160 Lasarte-Oria / ☎ 37 15 45 / Faxa: 36 54 93

Araba: San Antonio, 20-1. ezker. / 01005 Gasteiz / ☎ 23 38 72 / Faxa: 23 38 73

Nafarroa: Iratxe Monastegia, 45-13. esk. / (Irtrintzi dorre) / 31011 Iruñea / ☎ 17 80 78 / 79 / Faxa: 17 80 77

Gipuzkoa: Loloila, 14-1.3 / 20005 Donostia / ☎ 42 69 96 / Faxa: 42 93 18

Bizkaia: Barroeta Aldamar, 2-1. eskuma. / 48002 Bilbo / ☎ 423 90 62 / Faxa: 423 94 60

Lapurdi / Nafarroa Behera / Zuberoa: 2. Galuperia kaia. / 64100 Baiona / ☎ 59 59 35 75 / Faxa: 59 25 75 11